

«Opera artearekin»: errepertorio lirikoko obra goraipatuak eta ekoizpen berriak dakartzan denboraldia.

ABAO BILBAO OPERA-K BERE 74. DENBORALDIA AURKEZTU DU, FIKZIO HISTORIKOAN OINARRITUTAKO IBILBIDEA DAKARRENA

- Bost opera gertaera historikoen errealitatearen eta literatur birsorkuntzaren zirrara narratiboaren artean ibiliko dira.
- Nadine Sierra eta Xabier Anduaga izango dira, abenduan, ABAOren Kontzertuko protagonistak, orkestrak lagunduta.
- Ekoizpen berriak, ahots liderrak eta maisu entzutetsuak giza izaeraren hizkuntza unibertsala islatuko duen denboraldian.
- ABAO Txikik lau obra eramango ditu Arriaga Antzokira, haurrentzako iradokitzaileak diren ipuinez, istorioz eta pertsonaiaz osatuak.
- BBVA Fundazioak ABAO Bilbao Operaren kultur jarduerari laguntzen jarraituko du, denboraldiaren babesle nagusia den aldetik.

Bilbon, 2025eko ekainaren 3an. Urriaren 25ean, larunbatean, ABAO Bilbao Operaren 74. denboraldia 2025-2026 hasiko da, Giuseppe Verdiren *La forza del destino* operarekin. Denboraldi honek historiarekiko lotura emozionala eskainiko du, gertaera errealean benetakotasuna fikziozko girotzearen eta pertsonaia alternatiboen zirrarez birsortzeko erronka sortzailea erakutsiko duen denboran zeharreko ibilbidean. Oholtzan, Espainiako Ondorengotza Gerraren osteko garaian, XVII. mendeko Parisko barrokismoan, Erromantizismoaren aroko Alemanian, Stuardo eta Ingalaterra etheen borroka dinastikoetan, eta Frantziako Iraultzan oinarritutako obrak.

Datorren denboraldian ere, kultur eta dibulgaziozko jarduera guztiak egingo dira, baita gizarte-programak ere, eta Euskalduna Bilbaon bost operaz eta kontzertu batez eta ABAO Txiki denboraldian Arriaga Antzokian lau ikuskiunez osatutako proposamen artistikoa eskainiko du.

«Opera Artearekin» lelopean, abangoardia artistikoa izango da nagusi agertokian, paregabeko abeslariarekin, orkestra-zuzendari ezagunekin, nazio-mailan eta nazioartean estreinatuko diren ekoizpenekin, eta kalitate gorenaren aldeko etengabeko apustuari eutsita, guztia bazkideak eta zaleak liluratzeko.

DATORREN DENBORALDIA DATUTAN

- ABAO Bilbao Operak eta BBVA Fundazioak, denboraldiaren babesle nagusiak, operaren bikaintasuna eta kultura sustatzen laguntzen dute, baita publikoari kalitate goreneko ikuskizunak eskaintzen ere. BBVA Fundazioa *La forza del destino* eta *Werther* operen babesle eskusiboa izango da, baita ABAOren Kontzertuarena ere.
- Opera-errepertorioko bost obrak osatuko dute denboraldia: *La forza del destino*, *Adriana Lecouvreur*, *Werther*, *Maria Stuarda* eta *Andrea Chénier*.
- ABAO Bilbao Operaren lau ekoizpen, bi koprodukzio berrirekin: *Adriana Lecouvreur*, estreinaldi nazionala, eta *Maria Stuarda*, nazioarteko estreinaldia.
- Guztira, 9 obra, kontzertu bat eta 36 emanaldi eskainiko dira, 21 denboraldi orokorrean, Euskalduna Bilbaon, gehi bost entsegu orokor, eta 15 haur eta gazteentzat ABAO Txiki denboraldian, Arriaga Antzokian. Guztira, 64.940 ikusle aurreikusten dira.

- Datorren denboraldian ABAOn izango diren maisuak: **Lorenzo Passerini, Marco Armiliato, Carlo Montanaro, Iván López-Reynoso, Guillermo García Calvo eta Marc Leroy-Calatayud**, Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoa zuzenduz, eta Bilboko Opera Koruarekin batera, ABAOren kolaboratzaile egonkorren prestigio artistikoa sendotuko dutenak.
- Emilio López eta Rosetta Cucchi eszena-zuzendariek debuta egingo dute ABAO Bilbao Operan, Ignacio García, Mario Pontiggia eta Alfonso Romero Moraren proposamen eszenikoekin bat eginda.
- Agertokian, munduko opera-antzoki nagusietan arrakasta izaten ari diren ahots bikainak: **Carmen Solís, Angelo Villari, Maria Agresta, Jorge de León, Stephen Costello, Annalisa Stroppa, Yolanda Auyanet, María Barakova, Michel Fabiano eta Saioa Hernández**.
- Nadine Sierrak eta Xabier Anduagak, beren nazioarteko arrakastaren ondoren, ABAOren Kontzertu eskusiboa protagonizatuko dute, abenduan, orkestrarekin eta programa erakargarriarekin.
- ABAO Txiki denboraldiak, 2025ean eszenatokian bi hamarkada beteko dituenak, 4 ikuskizun ekarriko ditu hainbat adinetarako. Horietako hiruk eskola-saioak izango dituzte, ABAOk prestakuntzarekin, musika-hezkuntzarekin, eta haur eta familiekin duen etengabeko konpromisoaren erakusgarri.
- Denboraldiz denboraldi bezala, ABAO Bilbao Operak aldibereko kultur jarduera osagarri bizia garatuko du hitzaldi-zikloak, hitzaldi didaktikoak, bisita gidatuak eta bestelako gizarte- eta kultura-ekintzak eskainiz, hainbat erakunde eta enpresarekin lankidetzan, hala Euskal Autonomia Erkidegoan nola autonomia-erkidego mugakideetan.
- Gazteentzako Gazteam programak hazten jarraituko du, 25 eta 30 urtetik beherakoei jarduerak eta pizgarri ekonomikoak eskainiz.
- «Ópera y +» gizarte-programa solidarioak, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean egiten denak, hamaikagarren edizioa izango du, eta bere jarduera ospitale barruan zein kanpoan egingo diren ekintzekin sendotuko du, "la Caixa" Fundazioaren, Zabalgarbiren eta Gondra Barandiarán Fundazioaren laguntzarekin.

74. OPERA-DENBORALDIA

ABAO Bilbao Operaren 74. Denboraldiak errealitate historikoa eta literatur birsorkuntza uztartuko ditu, bost konpositoreen bitartez: Verdi, Cilea, Massenet, Donizetti eta Giordano. Guztiek ere errepertorio klasikoko obra txalotuak ekarriko dituzte Euskalduna Bilbaoko agertokira, hala nola ***La forza del destino, Adriana Lecouvreur, Werther, Maria Stuarda*** eta ***Andrea Chénier***.

Datorren denboraldian, ABAO Bilbao Operaren lau ekoizpen taularatuko dira, horietako bi estreinaldiak, bi eszena-zuzendarik, bi musika-zuzendarik eta hamabi abeslarik debuta egingo dute eta Elkartearen katalogo artistikora batuko dira. Bilboko Opera Korua, Boris Dujinen zuzendaritzapean, denboraldiko alderdi koralaz arduratuko da, eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Euskadiko Orkestra eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, nazio-mailan eta nazioartean gero eta ospe handiagoa dutenak, programazioan parte hartuz ABAO Bilbao Operaren kolaboratzaile egonkor gisa finkatuko dira.

Eszenatokian, aparteko emakumezko abeslarien presentzia nabarmenduko da: **Carmen Solís, María Agresta, Silvia Tro Santafé, Annalisa Stroppa, Yolanda Auyanet, Maria Barakova eta**

Saioa Hernández. Haien ondoan, gizonezko ahots nabarmenak: **Angelo Villari, Juan Jesús Rodríguez, Jorge de León, Carlos Álvarez, Stephen Costello,** eta **Michael Fabiano.**

Giuseppe Verdi

LA FORZA DEL DESTINO

2025eko urriak 25, 28, 21 eta azaroak 3

- **Carmen Solís, Angelo Villari eta Juan Jesús Rodríguez, abeslari nagusiak.**
- **Oholtzan, ABAO Bilbao Operaren ekoizpena, dinamikoa eta teatrala, eta Lorenzo Passerini maisua Euskadiko Orkestraren buru.**
- **BBVA Fundazioaren babesletza eskusiboa.**

ABAO Bilbao Operak Giuseppe Verdiren *La forza del destino* operarekin abiatuko du denboraldia, urrian. Espainiar kutsuko drama erromantikoan, lirismo hunkigarri eta dotorezia handiko eszenak pasarte barregarri eta satirikoekin tartekatzen dira, eta Verdiren grina sortaileak istorio konplexua maisulan bihurtzen du. **BBVA Fundazioak obra hau babestuko du.**

Lau ekitaldiko opera hau errepertorio verdierreko bitxienetakoa da, eta Leonoraren, Calatravako markesaren alabaren, eta Álvaro jaunaren, inken errege-familiako ondorengoaren, zorigaiztoko maitasun-istorioa du hizpide. Abeslari-taldean, Carmen Solís sopranoa nagusi, eta harekin batera Angelo Villari eta Ketevan Kemmozlde, ABAOn debuta egingo dutenak, eta **Juan Jesús Rodríguez** baritono verdierreferentea.

Musikari dagokionez, Lorenzo Passerini maisua Euskadiko Orkestraren buru itzuli, eta obertura ospetsuarekin hasten den partitura luze eta ederra zuzenduko du.

Agertokian, ABAOren Bilbao Operaren ekoizpena, Ignacio Garcíak sortua, istorioa Espainiako Gerra Zibilean kokatzen duena eta eszenografia dinamiko, teatral eta oso adierazkorra dakarrena. Jantziak, Ignacio Garcíak eta Cesidio Niñok material birziklatuekin eginak, jasangarritasunaren eta berrikuntzaren aldeko estrategian oinarrituta daude.

Francesco Cilea

ADRIANA LECOUVREUR

2025eko azaroak 22, 25, 28 eta abenduak 1

- **Maria Agresta, Jorge de León, Silvia Tro Santafé eta Carlos Álvarez, laukote protagonista.**
- **Musika-zuzendaritzan, Marco Armiliato maisu goraipatua Bilbao Orkestra Sinfonikoaren buru.**
- **ABAO Bilbao Operaren eta Teatro Lirico di Cagliariaren koprodukzioaren estreinaldia, Mario Pontiggia eszena-zuzendaritzarekin.**

Cilearen operarik ospetsuena, **Adriana Lecouvreur**, azaroan iritsiko da ABAO Bilbao Operaren koprodukzio berriaren estreinaldiarekin eta Mario Pontiggia eszena-zuzendariak bereizgarri duen ikusgarritasunarekin, eszenografia txundigarri, klasiko eta tradizionala izango baitu, luxuzko jantziak barne.

Ukitu veristekin, istorioa Adrienne Lecouvreur aktore ospetsuaren benetako bizitzan oinarrituta dago eta, bai protagonista bai Bouillongo printzesa Maurizio gaztearekin maiteminduta egonik, lehenaren pasioa eta bigarrenaren jelskortasuna aurrez aurre jartzen ditu. Ahotsak nabarmentzeko opera honetan, Maria Agrestak pertsonaia nagusia antzeztuko du, diva hutsa;

Silvia Tro Santafék eta Jorge de Leónnek maitasun-hirukotea osatuko dute; eta Carlos Álvarez Machonnet izango da. Pasio, azpijoko politiko, jeloskortasun eta gurutzatutako maitasun sutsuz osatutako istorioa, ezinbestean tragedian amaituko dena.

Marco Armiliatok, egungo musika-zuzendari paregabeenetakoa eta munduko antzoki nagusietan gonbidatua denak, indar dramatiko, edertasun melodiko eta aparteko orkestrazioz osatutako partitura zuzenduko ditu, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren buru.

Jules Massenet

WERTHER

2026ko urtarrilak 17, 20, 23 eta 26

- **Stephen Costello, Annalisa Stroppa eta Sabrina Gárdez, erromantizismo klasikoaren istorio fetitxeko protagonistak.**
- **Carlo Montanaro musika-maisu entzutetsua Bilbao Orkestra Sinfonikoaren buru.**
- **Comunale di Bologna antzokiaren ekoizpena, Rosetta Cucchik, ABAOn debuta egingo duenak, sortua.**
- **BBVA Fundazioaren babesletza eskusiboa.**

2026. urteari erromantizismo frantseseko opera gorenak emango dio hasiera: *Werther*, Jules Massenetena. Goetheren «*Werther gaztearen arrangurak*» literatura unibertsaleko klasiko epistolarrean oinarritua, zoriontasunak aurkitzen ez duen maitasunaren esperientzia sakonaz dihardu. **BBVA Fundazioak obra hau babestuko du.**

Lau ekitaldiko eta bost koadroko drama liriko honek, argumentu ezin erromantikoagoa duenak, Wertherren eta Charlotteren arteko ezinezko maitasun-istorioa kontatzen du, eta bere ildo melodiko finagatik eta orkestra-estaldura dotoreagatik nabarmentzen da. Istorioko pertsonaiak gorpuzteko eta haien musika-komplexutasunari aurre egiteko, ABAOk Stephen Costello, Elkartean debuta egingo duena, eta egungo mezzosopranorik garrantzitsuenetakoa, Annalisa Stroppa, bilduko ditu abeslari-taldearen buru.

Musika-zuzendaritzaz Carlo Montanaro maisua arduratuko da, errepertorio frantsesean aditu aparta, eta, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren buru, orkestrazio zaindu, boteretsu, eder eta biribileko partitura zuzenduko du, gaur egun oraindik ere publikoarengan zirrara ikaragarria eragiten duten une enblematikoak eta guzti.

Eszenatokian, ezohiko edertasuna duen ikuskizuna, Rosetta Cucchik Teatro Comunale di Bologna antzokirako sortua. Estilo zinematografiko, indar dramatiko eta poetikoagatik, inplikatzeko gaitasunagatik, eszenen fintasunagatik eta jantzien erakargarritasunagatik nabarmentzen da.

Gaetano Donizetti

MARIA STUARDA

2026ko otsailak 14, 17, 20 eta 23

- **Aparteko ahots protagonisten hirukotea: Yolanda Auyanet, 2024ko Musika Sari Nazionala emakumezko abeslari onenari, Maria Barakova eta Filip Filipović.**
- **Emilio Lópezek ABAO Bilbao Operaren eta Oviedoko Operaren koprodukzioarako sortutako proposamenaren nazioarteko estreinaldia.**
- **Iván López-Reynoso maisu mexikarra Euskadiko Orkestraren buru itzuliko da Bilbora.**

Donizettiren erreginen arteko duelu historikoa, *Maria Stuarda*, hirugarren aldiz antzeztuko da ABAO Bilbao Operan, otsailean Bilbora itzulita. Bergamoko konpositorearen erreginei buruzko

trilogiako obra zirraragarri hau, musika- eta antzerki-une bikainak dituen, aukera bikaina da aparteko obra honetaz gozatzeko.

Tragedia lirikoa, bi erreginaren arteko lehia historiko dramatikoa sakonki jorratzen duena: bata Maria Stuarda da, katolikoa eta Eskoziako erregina; bestea, Elisabetta I.a, protestantea eta Ingalaterrako erregina. Lehena espetxean dago, bigarrenak hala aginduta. Haien artean, gizon batek leialtasuna eta maitasuna orekatzen ditu. "Sasiko zital halakoa!" oihua izango da Maria, saldukeriaz salatua, urkamendira eramango duen irain sutsua.

Aparteko ahotsak nabarmentzeko opera ezin hobea izanik, errepertorio-mota honetan oso entzutetsuak diren abeslariak erakartzen ditu, hala nola Yolanda Auyanet sopranoa, 2024ko Musika Sari Nazionala emakumezko abeslari onenari, Maria Stuarda jasankorra antzeztuko duena, unibertso donizettiarreko pertsonaiarik konplexuenetakoa, abeslari gutxi batzuek bete ditzaketen ahots-eskakizunak dituen. Maria Barakova mezzosopranoa Elisabetta gupidagabea izango da, eta **Filip Filipović** tenorra, berriz, Leicester maitemindua. Hirurek debutatuko dute ABAOren denboraldietan.

Iván López-Reynoso zuzendari mexikarra arduratuko da musika-zuzendaritzaz, **Euskadiko Orkestraren buru**, kolore-aberastasun eta konplexutasun handiko orkestrazioa duen partitura bideratzeko.

ABAO Bilbao Operaren eta Oviedoko Operaren koprodukzioa, Emilio Lópezena, Bilboko eszenan debuta egingo duenarena, nazioarteko primizia da. Zuzendariak harridura eragingo du proposamen ezin ederrago honekin, non elementu klasikoak eta modernoak maisutasunez nahasten diren, jantzi dotoreekin eta argi-joko ikusgarriarekin girotuta.

Umberto Giordano

ANDREA CHÉNIER

2026ko maiatzak 23, 26, 29 eta ekainak 1

- **Abeslari-talde bikaina, Michael Fabiano, Saioa Hernández eta Juan Jesús Rodríguezekin.**
- **ABAO Bilbao Operaren eta Peraladako Jaialdiaren koprodukzio klasikoa, Alfonso Romero zuzendariarena.**
- **Bilbao Orkestra Sinfonikoak, Guillermo García Calvoren zuzendaritzapean, eraginkortasun dramatiko handiko doinu-jositako partitura joko du.**
- **Kutxabankek obra hau babestuko du.**

Maiatzean, Kutxabanken babesletzarekin, Giordanoren **Andrea Chénier** tragedia veristak emango dio amaiera denboraldiari. Ezinbesteko opera da, melodia hunkigarri eta zirraragarri betetako obra indartsu eta dramatikoa, aria oso ezagunak dituen, «*La mamma morta*», kasurako. 2026an, 130 urte beteko dira Milango Teatro alla Scalan estreinatu zenetik, eta 73 urte ABAOn estreinatu zenetik, Coliseo Alban.

Giro historikoz bildutako drama honek, afera sozialetan murgiltzen denak, gorrotoa, indarkeria, gerra zibila, erresuminak, klaseen arteko borroka, maitasuna eta erromantzea ditu hizpide, Frantziako Iraultzaren esparruan, André Chénier poetaren bizitzaren eta heriotzaren interpretazio sortzailea eginez.

Doinu zirraragarri, hunkigarri eta jariakorrez betetako opera honetarako, ABAOk goi-mailako abeslariak bilduko ditu: Michael Fabiano tenor amerikarra, Bilbora pertsonaia nagusia antzezteko itzuliko dena; Saioa Hernández soprano miresgarria, ABAOn Maddalena di Coigny jokatzeko debutatuko duena; eta, hirukote protagonista osatzeko, Juan Jesús Rodríguez baritono dramatikoa, Carlo Gérard pertsonaiaren azalean.

Musika Guillermo García Calvo zuzendariaren esku egongo da, eta Bilbao Orkestra Sinfonikoa zuzenduz ahalik eta etekinik handiena aterako dio melodia zabalez, pasarte deklamatorioz eta eraginkortasun handiko eszenaz osatutako partiturari.

Oholtzan, ABAO Bilbao Operaren eta Peraladako Jaialdiaren koprodukzioa, Alfonso Romerok sortua. Eszenografia zaindu eta dotorea Frantziako Iraultzan girotuta dago, eta gatazka hartako gordintasuna erabat islatzen du. Jauregiko aretoek, espetxeek eta auzitegiek eremu sinbolikoaren eta efektistaren artean dabiltzan mezuak zabaltzen dituzte.

NADINE SIERRA ETA XABIER ANDUAGA, PAREGABEKO BI IZAR KONTZERTURIK IRRIKATUENERAKO

- **Abenduan, ABAOren Kontzertuak Nadine Sierra diva nagusia eta antzoki guztietan gehien desiratzen den tenorra, Xabier Anduaga, bilduko ditu, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin eta Marc Leroy-Calatayud maisuarekin batera.**
- **BBVA Fundazioa izango da babesle eskusiboa.**
- **Bazkide-abonamendutik kanpoko kontzertua.**

Abenduaren 13an, larunbatean, ABAO Bilbao Operak Nadine Sierra soprano estatubatuarra eta Xabier Anduaga tenor gipuzkoarra bilduko ditu Euskalduna Bilbaoko agertokian, nazioarteko opera-panoramako izar garrantzitsuenetako bi, hain zuzen ere, ahotsen eta presentzia eszenikoaren batasun perfektuan.

Marc Leroy-Calatayud maisuaren zuzendaritzapean eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin batera, Sierrak eta Anduagak, une ahaztezinetako protagonistak eurak, hala nola sopranoaren bisa *Roméo et Juliette* operan, 2023an, ABAOn lehenbizikoz izan zenean, edo tenorraren emanaldi bikainak *La cenerentola*, *I puritani* eta *Cossí fan tutte* obretan, publikoak ederki ezagutzen dituen operetako aria eta duo enblematikoak abestuko dituzte. Beren ahotsen konbinazio sofistikatuak eta antzezteko dituzten gaitasunen konplizitate dotoreak muturreko pasioz eta ageriko sentimenduz blaitutako kontzertu gogoangarria iragartzen dute.

Nadine Sierra abeslaririk bertutetsuenetakotzat jotzen da, ahots-teknikaren miraritzat, eta aparteko ahots-teknika horrek eraman du, hain zuzen, bel cantoaren Olinpora. Xabier Anduaga, ostera, bere ibilbide arrakastatsuko une oso gozoan dago, mundu osoko eszenatokietan txalotua eta bere ahots miragarriaz entzuleak txunditzen.

Leroy-Calatayud maisuak, antzokirik garrantzitsuenetan lan egin duenak, partituretatik eta orkestratik musikaltasunaren eta ahotsen onena eta nabarmenena lortzeko orduan duen sentiberatasun berezia ekarriko dio kontzertu honi.

ABAOren Kontzertuak emanaldi bakarra izango du, bazkide-abonamendutik kanpo, BBVA Fundazioak babestuta.

ABAO TXIKI-K 20 URTE BETEKO DITU OPERA GAZTEENEI HURBILTZEN

- **2025ean, ABAO Txikik bere hogeigarren urteurrena ospatuko du, XXI. denboraldian, Elkarrekin belaunaldi berriei kalitate goreneko ikuskizunak aurkezteko duen konpromisoari helduta.**
- **Lau ikuskizun programatuko dira: *La caja de los juguetes*, *Cuento de Navidad*, *El guardián de los cuentos* eta *El bosque de Grimm*, horietako bi ABAO Bilbao Operaren koprodukzioak.**
- **15 emanaldi hainbat adinetako ikusleentzat, gutxi gorabehera 15.000 lagunentzat.**

2025eko urrian, ABAO Bilbao Operak 20 urte beteko ditu eraldaketa kulturalaren eta kalitatezko ikuskizunen programazioaren bitartez gazteenen hezkuntzarekin eta garapen emozionalarekin duen konpromisoari eusten, ABAO Txikiren bidez. ABAO Txikiren hogeita batgarren edizioa, Arriaga Antzokian, alderdi artistikoan zein pedagogikoan sendotuko da, lau ikuskizunekin, familiek gehien espero dituzten muntaiekin, horietako bi ABAO Bilbao Operaren koprodukzioak, eta 15 emanaldirekin, ikastetxeentzako eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako hiru barne.

20 urteko ibilbidean, ABAO Txikik 95 obra taularatu ditu, datorren denboraldikoak barne, horietatik 54 desberdinak, 11 estreinaldi eginda, eta ABAO Bilbao Operaren 21 produkzio edo koprodukzio. Guztira, 388 emanaldi, horietatik 78 eskola-saioak, non 60.300 ikaslek baino gehiagok hartu duten parte.

Bi hamarkada hauetan, 380.000 ikuslek baino gehiagok hainbat formatutan gozatu ahal izan dute kultur ikuskizunez eta programez, betiere haurrak operaren kulturen hezteko, trebatzeko eta alor horretara erakartzeko helburuz.

ABAO Txiki denboraldiak beti egon dira ABAO Bilbao Operaren programa didaktikoari lotuta, alegia, Bizkaian garatzen den musika-hezkuntza inklusiboko proiektuari, zeinetan Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek hainbat urtez parte hartzen duten, ikastetxeen eta irakasleen inplikazioarekin. 21 urte hauetan, jarduera behin baino ez da eten, COVIDak eragindako pandemian, eta guztira 250.000 ikasle inguruk hartu dute parte, opera aktibo pedagogiko estimulatzailea bilakatuta.

La caja de los juguetes ikuskizunak emango dio hasiera denboraldiari, azaroan, Etcétera konpainiaren eta Enrique Lanzen ipuin musikalak, hain zuzen ere. Panpina dantzari baten eta zurezko soldadutxo baten arteko maitasun-istorio samurra kontatzen du, Politxinelaren izaeragatik kolokan dagoena. Txotxongiloak, itzalak eta proiektzioak Claude Debussyren musikaz lagunduta.

Urte berria ospatzeko, urtarrilean ***Cuento de Navidad*** etorriko da, Dickensen klasikoan oinarritutako opera, Iñigo Casaliren musikarekin, Nafarroako Ganbera Operaren eta Baluarte Fundazioaren koprodukzioa. Ikuskizuna operaren eta musikaren uztarketa da.

Martxoan, ***El guardián de los cuentos*** antzeztuko da, haurrentzako opera, Miquel Ortégaren musikarekin eta Pablo Ramosen eszena-zuzendaritzarekin, ABAO Bilbao Operaren eta Nafarroako Ganbera Operaren koprodukzioa, fantasiazko, umorezko, abenturazko eta misteriozko mundu bat birsortzen duena haurrentzako kontakizun ezagunenetako batzuen bidez, hala nola Edurnezuri, Pinotxo, Hansel eta Gretel, eta Loti Ederra.

Maiatzean, testurik gabeko ***El bosque de Grimm*** ikuskizun bisualak emango dio amaiera denboraldiari, Maurice Ravel jatorri frantses-euskalduneko konpositore bikainaren musikaren bidez kontatuta. Obra honek hainbat sari jaso ditu: Teatro Rojas 2015eko familia-ikuskizun onenari, Max 2014ko haur-ikuskizun onenari eta Teatro Andaluz-SGAE 2013ko haur-ikuskizun onenari.

KULTURA- ETA GIZARTE-JARDUERAK ABAO ESKURAGARRI PROGRAMAN

- «El ABC de la Ópera» zikloak, ohi bezala, denboraldiko obrei buruzko hitzaldiak eskainiko ditu, zehazki bost.
- Hiru hamarkada baino gehiago operaren gaineko programa didaktikoa garatzen, lurraldean eta lurraldetik kanpo jarduera berriak antolatuz.

- «Ópera y +» programak, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalean, hamaikagarren edizioa izango du, ospitaleko pazienteei, haien senideei eta osasun-langileei laguntza emozionala ematen jarraitzeko.
- Gazteam ABAO zale gazteen artean sendotuko da.
- ABAO Bilbao Operak eta EITBk opera gizarte osoari hurbiltzen eta zabaltzen jarraituko dute.

ABAO Bilbao Operak kultura- eta gizarte-programa zabala garatzen du, gizarte osoarentzako doako jarduera eskuragarriak antolatuz, kulturarako eta arterako esparruak sortuta opera publiko guztiei hurbiltzeko.

«El ABC de la Ópera» zikloak, sektoreko itzal handiko profesionalen hitzaldiak eskaintzen dituenak, dohainik, beste edizio bat izango du Deustuko Unibertsitatean, DeustoBiderekin lankidetzan, oraingoan parte-hartzaile hauekin: Rafael Bernardo eta Mariela Rubio kazetariak, Cadena SER irrati Play Opera saioaren zuzendariak; Luis Gago musika-kritikari, editore eta idazlea; Irene de Juan musikologo eta kultur dibulgatzailea; Pablo L. Rodríguez katedraduna; eta Rubén Amón kazetari eta idazle ospetsua.

ABAOren programa didaktikoa irailean abiatuko da ehun ikastetxetan baino gehiagotan, dibulgaziozko hitzaldiekin eta aurkezpenekin. Programa Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleentzat da, nagusiki, eta irakasleentzako gida pedagogikoak eta ABAO Txiki denboraldiko eskola-saioak dakartza berekin, edo, ikasle helduagoen kasuan, denboraldi orokorreko emanaldietara joateko aukera.

Jarduera hau guztia helduen beste talde eta kolektibo batzuetara hedatzen da, hala nola esperientzia-ikasgeletara eta adinekoen kultur zentroetara, bai unibertsitateetakoetara bai Bizkaiko, Gasteizko, Iruñeko, Burgosko eta Santanderreko hainbat herritako udalekin lankidetzan antolatzen direnetara. Senior Programaren barruan, hitzaldi didaktikoak, bisitak Euskaldunara eta operara joateko parada eskaintzen dira.

«Concierto Desorden» zuzeneko podcasta, Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) elkarlanean garatua, Gonzalo Lahoz kazetari eta kultur dibulgatzaileak zuzentzen du, eta opera bakoitzeko protagonista nabarmenetako bat elkarriketatuz publikoak haren esperientzia ezagutzen du.

EITBk eta ABAO Bilbao Operak opera gizarte osoari hurbiltzeko eta zabaltzeko beren konpromisoari eutsiko diote, denboraldiko obrak eta kontzertuak grabatuz. 2022tik, 13 ikuskizunez osatutako katalogoa grabatu da: bederatzi opera, azkenekoa *Otello*, zeinaren lehen emanaldia zuzenean eman zen lehen aldiz ETB2n eta eitb.eus-en; Amartuvshin Enkhbaten Kontzertua; ABAO Txiki denboraldiko euskarazko bi ikuskizun haurrentzat: Bost Axola Bemola eta Pedro eta otsoa; eta Tutto Verdi International Awards sarien Gala.

«Ópera y +» programak, operaren eta haren inguruan ospitale barruan nahiz kanpoan antolatzen diren aldibereko jardueren bitartez Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko pazienteen, haien senideen eta osasun-langileen ongizate emozionala areagotu nahi duena, Nefrologia, Pediatria, Neonatologia, Egunko Ospitalea, Hesteetako Gaixotasun Infamatorioko Unitatea, Barne Medikuntza, Pneumologia, Onkologia eta Onkologia Erradioterapikoa ataletan garatzen da. Kultur proiektu solidario eta inklusibo honek "la Caixa" Fundazioaren, Zabalgarbiren eta Gondra Barandiarán Fundazioaren laguntza du.

Era berean, ABAO Bilbao Operak publiko berriak erakartzeko programak lantzen jarraitzen du, batez ere gazteen artean, Gazteam ABAO proiektuaren bitartez, zeinaren bidez hainbat motatako erraztasunak eta pizgarriak eskaintzen dizkien, 28 eta 33 €-ko tarifa lauak, esaterako, operara edozein obra ikustera joateko, edozein emanalditan eta erabilgarri dauden besaulkirik onenetan.

ABAO Bilbao Operak bestelako gaitasunak dituzten edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak lirikara eta kulturara hurbil daitezen sustatzeko gizarte-inklusio eta -lankidetzako programa eta jarduera solidarioak garatzen jarraituko du, hirugarren sektoreko hainbat erakunderekin eta enpresa nahiz instituzio laguntzaileekin elkarlanean.

MATERIALAK DESKARGATU:

- Ekoizpenen argazkiak eta zirriborroak, eta artista nagusien irudiak
- 74. Denboraldia sustatzeko bideoa